

An goien goien



AN GOIEN-GOIEN

(ARAITZ, Modesto de Lecumberri)
Kantaria: Ana Telletxea

An goien-goien izarra,
Errekondoan lizarra;
Etxe ontako nagusi jaunak
Urre gorrizko bizarra.

Urre gorrizko bizarra,
Zillar zurizko bizkarra;
Erreal txikiz egiña dauka
Elizarako galtzara.

Naparroan da Bardena,
Kaparrosoren urrena;
Etxeko andrea kopla dezagun
Nagusaren urrena.

Etxeko andre zabala,
Toki oneko alaba;
Bidean nator ondo jakiñik
Eskuzabala zerala.

Askan eder da garia,
Aren gaiñean txoria;
Erantzun batek bildu lezake
Neskatxa, zure gerria.

Usoak egal gorrizu,
Moko-aldea lumazu;
Orren aingeru txukun polita,
Nondik agertu zera zu?

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. IKASTURTEETAN KOMUNIKAZIO
GAITASUNA ETA LITERATURA GAITASUNA HAUR FOLKLOREKO KANTEN BIDEZ GARATZEKO

Paula Kasares

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. IKASTURTEETAN ARTE ETA
MUSIKA GAITASUNA HAUR FOLKLOREKO HERRI KANTUEN BIDEZ GARATZEKO

Arantza Almoguera

An goien goien

Paula Kasares

1. BERTSIO ABESTUA	2. BERTSIOA: EUSKARA BATUAN
An goien-goien izarra	Han goian-goian izarra
An goien-goien izarra, errekondoan lizarra; etxe ontako nagusi jaunak urre gorrizko bizarra.	Han goian-goian izarra, erreka ondoan lizarra; etxe honetako nagusi jaunak urre gorrizko bizarra.
Urre gorrizko bizarra, zillar zurizko bizkarra; erreal txikiz egiña dauka elizarako galtzara.	Urre gorrizko bizarra, zilar zurizko bizkarra; erreal txikiz egina dauka elizarako galtzada.
Naparroan da Bardena, Kaparrosoren urrena; etxeke andrea kopla dezagun nagusiaren urrena.	Nafarroan da Bardena, Kaparrosoren hurrena; etxeke andrea kopla dezagun nagusiaren hurrena.
Etxeko andre zabala, toki oneko alaba; bidean nator ondo jakiñik eskuzabala zerala.	Etxeko andre zabala, toki oneko alaba; bidean nator ondo jakinik eskuzabala zerala.
Askan eder da garia, aren gaiñean txoria; eraztun batek bildu lezake neskatxa, zure gerria.	Askan eder da garia, haren gainea txoria; eraztun batek bildu lezake neskatxa, zure gerria.

Erronda kanta honen lanketa batik bat ahozko tradizioetik heldu zaizkigun eredu poetikoetan agertzen ohi diren baliabide literarioak jorratzeko baliatuko dugu. Herri kantu hau kopla da; zehazki, kopla handi hautsia, Euskal Herrian arrunt ohikoa den metrika (8/8/10/8) duena.

1. Lanketaren aurreko jarduera. Ikasleei herri kanta bat entzungo dugula esango diegu. Herri kanta batzuk ospakizunetan, festetan, erromerietan eta halakoetan abesten ziren. “Han goian-goian izarra” neska-mutil taldeetan abesten ziren kantuetako bat da. Ikasleei kanta nolakoa izango den aurreikusteko galdegingo diegu: tristea edo alaia, aspergarria edo kilikagarria, motela edo bizia...
2. Lehen entzuketa. Kanta entzungo dugu, bi aldiz bederen.
3. Ulertu eta esanahiaz hausnartu. Ikasleen aurreikuspena bete den ala ez hausnartuko dugu eta kanta alaia, bizia... zer elementuk egiten duten zehazteko eskatuko diegu. Ikasleen arreta kantaren elementu erritmikoetara eramaten saiatuko gara (neurketara eta errimara).
4. Testu idatziaren gaineko lanketa. Kantaren testua (euskara batuan) emango diegu ikasleei eta horren gainean honako ariketak egingo ditugu zenbait baliabide poetiko lantzeko:
 - Ahapaldiak (edo estrofak) eta metrika. Ikasleei kanta osatzen duten ahapaldiez galdegingo diegu eta bertso-lerroak osatzen duten silabak zenbatzeko eta barra batez (/) bereizteko eskatuko. Ahapaldiak metrika aldetik eredu berari jarraitzen diotela nabarmenduko dugu.

----- (8 silaba)
----- (8 silaba)
----- (10 silaba)
----- (8 silaba)

- Errima. Errimaz ohartaraziko diegu. Kanta berriz abestuko dugu baina bertso-lerro bakoitzaren bukaeran gelditurik. Maisu edo maistra hasiko da eta ikasleek azken hitza errepikatuko dute. Testu idatzian errima zein bertso-lerrotan agertzen den identifikatu eta azpimarra dezatela eskatuko diegu:

Han goian-goian izarra,
erreka ondoan lizarra;
etxe hon(e)tako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.

...

- Adjektiboak. Adjektibo hauek hartuko ditugu testutik:
 - zabala eta eskuzabala. Esanahiaz galdegingo diegu. Eskuzabala hitz elkarketa (izena + adjektiboa) osatzen duten osagaiez hausnarraraziko diegu: esku + zabala. Halako beste batzuk osatzeko proposamena egingo diegu (adibidez, -gorria> ilegorria, larrugorria...; zuria> buruzuria, elezuria...; -luzea> eskuluzea, zangoluzea; -motza> besomotza, kaskamotza...).
 - gorritsu eta lumatsu. –tsu atzizkiak, izen bati lotzen zaiolarik, ugaritasuna adierazten du (dena dela, gorritsu hitzaren kasuan hori ez da horrela gorri adjektiboa baita). Ikasleei hitz horien eratorpenaz ohartaraziko diegu eta adibide gehiago eskatuko (esaterako, iletsu, koipetsu, jendetsu, izartsu, adeitsu, zorritsu...).
- Bikoiztapen indargarriak. Euskarak hitzak indartzearen errepikatzeko joera du. Halako bikoiztapen indargarria da goian-goian. Bi osagaiek atzizki bera daramate. Ikasleei errepikapenaz ohartaraziko diegu eta adibide gehiago eskatuko (esaterako, poliki-poliki, astiro-astiro, tarteka-tarteka, egunero-egunero, emeki-emeki...). Adibideak erabiliz esaldiak osatzeko eskatuko diegu.
- Metaforak. Kantan zenbait metafora agertzen dira. Ikasleei hauen esanahiaz galdegingo diegu:
 - ... urre gorrizko bizarra. Zer da urre gorria? Zergatik esaten du kantak nagusi jaunak urre gorrizko bizarra duela?

... zilar zurizko bizkarra. Zer da zilar zuria? Zergatik esaten du kantak zilar zurizko bizkarra dela?

Nola esango genuke metaforak erabiliz...

... perlak bezain zuriak diren hortzak?

... ikatza bezain beltzak diren begiak?

... lastoa bezain lakarra den ilea?

- ...eraztun batek bildu lezake / neskatxa, zure gerria. Zer esan nahi dute esaldi horiek? Nolako da neskaren gerria?

Zer aldatuko zenuke neska gizena dela adierazteko?

_____ batek bildu lezake / neskatxa, zure gerria (adibidez, traktore gurpil batek, bi metro sokak, bost lagunek eskuak loturik...)

5. Zabaltzeko jarduera: ahapaldi berria idatzi. Ahapaldien metrika eta errima landu ditugun ariketan ikasi dugunaz baliaturik, binaka ahapaldi berria asmatzeko eskatuko diegu ikasleei.
6. Kanta komunikazio jardueretan txertatu. Azkenik, karaoke egingo dugu denon artean herri kanta abesteko eta binaka asmatutako ahapaldi berriak ikaskideei erakusteko.

An goien goien

Arantza Almoguera

Kantu horren gaineko musika lanketa egiteko “karaoke” bertsioa dugula probestuko dugu. Horregatik ez dugu letra buruz ikastea eskatuko (irakurriz segitu ahal izanen baitute). Aitzitik, erritmoaren lanketa eginen dugu banaketa bitarraren eta hirutarraren konbinazioaz ohartzeko (eta hurrengo ikasmailetan ikasteko), hirukotxoak eta kortxeak aldizkatzen baitira. Gorputzaren perkusioaren bidez sortu eta imitatzen den erritmoa praktikatzeari baizik ez dugu eginen, ikasleek barnera dezaten. Horregatik, ez da beharrezkoa izanen partitura irakurtzea eta gero erakutsiko dugu. Partituran “erritmoak” (hirukotxoak, kortxeak eta beltzak) identifikatuko dugu soinu plano desberdinetan (esku-zartak, izter-zapladak eta hatz-klaskak, hurrenez hurren).

The musical notation is presented in two systems, each with three staves. The first staff is labeled 'Kriskitinak' and the second 'Txaloa'. Both have a 2/4 time signature. The third staff is labeled 'Kolpea izterretan' and also has a 2/4 time signature. The notation uses various symbols to represent different types of beats: horizontal lines for 'Kriskitinak', eighth notes for 'Txaloa', and eighth notes with stems for 'Kolpea izterretan'. The first system consists of four measures, and the second system also consists of four measures. The notation is designed to be easily imitated by the students.

Hasieran, gorputzaren perkusioaren bidezko erritmo lanketa besterik ez dugu eginen. Horren ondotik, kantua melodia ikasiko dugu erritmoaz eta kanta-marmarrean ari garelarik, kasu honetan garrantzitsuena hiru-bi aldizkatzearen lanketa erritmikoa baita. Gero, kantua abestu ahal izanen dugu letra eta guzti, “karaoke” baliatuz eta lehenago landu dugun gorputzaren perkusioaz laguntzen ahal dute.